



LUIS JAUREGIALTZO / FOKU

«Konektibitatea bazterketarako beste aldagai argi bat da»

Carlos Bargos • Bizkaiko Caritaseko zuzendaria

Geroz eta gehiago dira bazterketa egoeran daudenak, bai. Halere, azkeneko asteetan administrazioekin egindako lana goratu du Bargosek. «Laguntza publikoa izatea eta hirugarren sektorearen errealitatea ezagutzea da gakoa».

Igor Susaeta

Carlos Bargos Bizkaiko Caritaseko zuzendariarentzat (Muskiz, Bizkaia, 1964), «posible da», COVID-19ak eragindako krisia dela medio, beharrak dituzten pertsonak artatzeko sistemek gainezka egitea datozen hilabeteetan. Halere, ez du ezkorra izan nahi; izan ere, izurriaren gogorrean, «sormena, irudimena eta ausardia» erabiliz, duela hilabete batzuk «pentsaezinak» izango ziren hainbat prozesu aktibatu dituzte pertsonen beharrei erantzuteko. «Batzuetan, soilik molde honetako krisiak izan daitezke gauza gu modu honetan aktibatze».

Caritasek Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako 2019ko memoriak aurkeztu zituen atzo. **lazko memoriatik atera dituzten ondoretako bat da COVID-19ak eragindako krisia sakona izango dela, eta suspertze prozesuetan zeuden pertsonak eta familiak amildu egingo direla.**

2019ko datuez hitz egitea historiaurreaz hitz egitea bezalakoa da. Errealitatea hain izugarriki irauli da... Datu horiek erakusten digute zein zen abiapuntua, eta azaldu dezakete krisi hau zergatik ari den hainbestarainoko mina egiten. Iaz detektatu genuen euskal gizartearen ehuneko adierazgarri bat, %15, bazterketa egoeran zegoela. Baina ikusi genuen «ez atzera ez aurrera dagoen gizartea» deitzen diogun horren ehuneko ere ia %15ekoa zela. Egoera oso prekarioan daude: bizitzeko doi-doi ematen dien enplegu baretakin, informala, segurtasun gutxi ematen diena... Iruditzen zitzagun, horrenbestez, lurrak, nolabait, dar-dar egitean, haiek seguituan muturreko zaurgarritasunean egongo zirela. Gertatzen dena da ez dela lurrikara txiki bat gertatu, baizik eta gertaera sozial handi bat izan dela, krisi handi bat.

Pertsona horiek, beraz, bazterketa egoeran daude jada?

Bai. Enplegu informalak dituzte; hortaz, ez dute enplegu horri loturiko babes sozialik eduki. Agerian geratu da ekonomia informala hedadura adierazgarria dela. Baliabideak jarri behar dira, eta administrazio publikoari erantzukizunerako deia egiten diogu; baita norbanakoei ere. Pertsona asko daude gure etxeetan lanean, adinekoak zaintzen, haurrak, etxeko lanak egiten, eta ez ditugu behar bezala babesten. Pertsona horiek egun batetik bestera baliabide ekonomikorik gabe eta enpleguari loturiko babes sozialik gabe geratu dira.

Hori dela eta askoz ere pertsona gehiago artatu behar izan dituzte azken asteotan, ezta?

Azkeneko bi hilabeteetan ia bi koiztu egin ditugu ematen ditugun laguntza ekonomiko zuzenak. Adibidez, martxoaren 13an lanean zeuden eta hurrengo egunean jada ez zeuden pertsonak dira. Sarrera ekonomikorik gabe geratzen diren familiak dira, eta

3,7

LAGUNTZAK, MILIOI EUROTAN

Pertsonen oinarrizko beharrak asetzeko, Caritasek 3,7 milioi euroko zuzeneko laguntza ekonomikoak eman zituen iaz: 508.030 euro Araban, 1,5 milioi euro Bizkaian, eta 1,7 milioi euro Gipuzkoan.

27.806

ARTATUTAKO PERTSONAK

Caritasek 27.806 pertsona artatu zituen iaz: 5.988 Araban (%64 emakumeak), 13.357 Bizkaian (%55 emakumeak), eta 8.461 Gipuzkoan (%55 emakumeak). Azken urteetatiko joerari eutsiz, kopurua jaitsi egin zen.

%74

ANDRAZKO BOLUNTARIOAK

Caritaseko boluntarioen artean gehienak emakumezkoak dira: iaz, %74. Lurraldeka, Araban %65 dira andrazkoak; Bizkaian, %81; eta Gipuzkoan, %65.

Adibide bat jarriko dizut: adineko pertsona bat, pentsio duin bat duena, baina laugarren solairu batean bizi dena igogailurik gabe. Ezin da mugitu; beraz, ezin du parte hartu. Haren bizitza zailtzen da, baina arazoa ez da ekonomikoa, eta beste aldagai batzuen ondorioz dago bazterketa egoeran.

Memorietan dioenez, krisialdiak betikotutako kolektiboetako bat da bakarrik dauden eta seme-alaben ardura duten «lan prestakuntza gutxi» emakumeek osatutakoa.

Guretzat profil konplexuena da. Kasu horietan, babes sarerik ez badu, ezinezkoa da zaintzaren eta lanaren arteko kontziliazioa. Egoera horri *bazterketa sozialaren kiribila* deitzen diogu: ez dago horretatik ateratzeko modurik. Beraz, adingabeak zaintzeko laguntza bilaketak eta formakuntza eta enplegua aurkitzeko gaitasunaren aukera egonkorrek ematen dute modua emakume horiek aurrera egin ahal izateko.

Zuen helburuetako bat da baliabide publikoak indartzea. Ba al dago modurik administrazioek pertsonen oinarrizko eskubideen estaldura blindatzeko?

Hori eskatzen dugu, eta administrazio publikoen saihestu ezinezko ardura da. Halere, beharrezkoa da gizarte zibilaren parte hartze aktiboa. Ikusi da Euskadiko hirugarren sektore sozialak lan bikaina egin duela aldi honetan. Hori dena, administrazioekin lankidetzan. Inoiz ez bezalako lana egin da beharrak detektatzen eta premiazko erantzunak aplikatzen. Orain arte inoiz ez da egon elkarrekin lan egiteko gaitasun hori; albiste ona da, eta mantendu egin behar dugu. Aurreko krisian ez genuen asmatu gizartea beste modu batean berreraikitzen, eta, agian, osasun krisi batek utzi behar digu argi ondasun komunari eutsi behar diogula.

Administrazioekin bildu al zarete azken asteotan?

Bai, hamaika aldiz, telamatikoki. Modu oso bizian lan egin dugu haiekin, eta lan hori bikaina izan da, harrigarriki ona. Konfinamenduak zaildu egin du ohiko erantzunak ematea, eta aurrerapauso oso garrantzitsua eman da elkarrekin lankidetzan, harreman publiko-privatu horretan. Uste dut balioa eman zaiola erantzun publikoari, eta balioa eman zaiola hirugarren sektorearen zalutasunari. Laguntza publikoa, hirugarren sektorearen errealitateaz dugun ezagutzarekin batera, gakoa da. Elkarriketa zibilarri eutsi behar zaio.

bat-batean elikatze, etxea hornitzeko edo, besteak beste, alokairuari eusteko arazoak eduki-tzen hasten dira. Eta zer esan konektibitateaz, adingabeen artean eskolei jarraitzeko orduan izandako arrakala digitalaz... Komunikazioaren eremua oinarrizko beharretako bat bihurtu da, eta agerian geratu da konektibitatea bazterketa sozialerako beste aldagai argi bat dela.

2019an 334.000 pertsona zeuden bazterketa egoeran EAEn; hau da, herritarren %15. Kopuru hori baloratu daiteke beste herrialde batzuetako egoerarekin parekatuta?

Estatu mailako erreferentzia batzuk baditugu, eta Euskadin nabarmen hobe da egoera. Dena dela, guri gustatzen zaigu geure buruarekin konparatzea, kanpoko konparazio guztiek gure gizartearen erradiografia positibo bat ematen digutela dirudi eta. Biztanleriaren ehuneko adierazgarri batek lortu du aurreko krisialdia gainditzea, eta aldeko bizi baldintzak garatu ditu. Baina beste kolektibo adierazgarri bat baztertutako pertsonen zakura erori da, eta gizendu egin du zakua. Dena den, guk bazterketa ulertzen dugu pobrezia ekonomikoaren eremua gainditzen duen errealitate baten gisara.